


Ihardunaldiak

Zazpi ebidentzia birjaiotzarako

Xabier Amuriza



Otsailak 2 eta 9


Gaitegia

Otsailak 2 (10.30-13.30)

- **ESALDIEN LUZE-LABURRA.** Euskarak, tresna bezala, gaitasun osoa eta normala behar du, esaldi mota guztiak, labur zein luze, erraz zein konplexu, nahiaren arabera josteko, inguruko hizkuntza garatuen antzera. Luzerak ez du beti zailtasuna esan nahi. Hori markatzen duena “konplexutasuna” da. Hiru lerroko esaldi bat hogeikoa baino zailago izan daiteke, sintaxi edo beste zenbait baliabide konplexuren gainean eraiki bada. Dena adibide konkretuekin azaldu eta eztabaidatuko da.
- **PERPAUSAREN ORDENA.** Euskarak esaldiko elementuak ordenatzeko era ezberdin asko ditu, eta denak dira baliagarri eta balios, argitasun, zehaztasun eta espresioaren baitan. Argitasunak ez du “erraztasuna” esan nahi. Izan daiteke testu zaila kontzeptuengatik, baina sintaxi argikoa. Iluntasuna ere izan daiteke irakurlearen gaitasun mailaren kontua. Hemen ere adibide konkretuekin azalduko da euskarak esaldia ordenatzeko era zuzen eta ezberdin asko dituela, unean uneko espresioaren arabera.
- **ERLATIBOA.** Euskarak erlatibo osoa eta zehatza behar du, inguruko hizkuntza garatuen antzera. Erlatibo ez-murrizgarrian, aposizioaz gainera, badira baliabideak: zein, non, baita... Murrizgarrian hut-sune handia dago. Proposamen bat aurkezten da.

Otsailak 9 (10.30-13.30)

- **SINTAXI OSOA.** Euskal sintaxiak, bere baliabide propioez gainera, inguruko hizkuntza garatuak bezain osoa eta zehatza izatera jo behar du. Besteak beste, EZEN partikulak konpon dezake izen baten menpeko perpausen arlo zail eta garrantzitsua.
- **ADITZA ERRAZTU.** a) EZAN-E(D)IN aditzen formak konparatu. Adibidez: niezazkioke-neizkeo. b) Datiboa aditzetik kanpo: Norbaiti eman nintzan maitearen maitez. c) Idem objektu plurala: Eskerrak eman zagun zeruko Jainkoari. **ADITZA LABURTU.** Labur-premiak asko, hizkuntza garatu batean: elkarrizketak, titularrak, azpi-titulak, komikiak, iragarkiak, leloak, sloganak, kantak, publizitatea, kartelak, kaleetako hizkuntza idatzia... Baliabide bat: aditz trinkoa galbidetik garapenerantz.



Argibideak

- Datak: Otsailak 2 eta 9.
- Tokia: Euskokultur Mintegia (Baratzeetako Zeharkalea 2, Iruñea)
- Ordutegia: 10:30-13:30.
- Izaera: Presentziala.
- Ordu kopurua: 6.00 ordu
- Matrikula: Orokorra: 20,00 €. UEU-ko bazkideak: 15,00 €.
- Matrikula-epea: Urtarrilaren 31 arte.

Argibide gehiago eta izen-ematea:
info@hedabe.info - 948 144 706

Antolatzailea: IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK FUNDAZIOA

Laguntzaileak:

